

**OTXANDIOKO UDAL OSOKO BILKURAK 2011KO ABENDUAREN 22AN  
OSPATUTAKO OHIKO BATZARRAREN AKTA. –**

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA POR EL PLENO DEL  
AYUNTAMIENTO DE OTXANDIO, EL 22 DE DICIEMBRE DE 2011.-**

**Batzarreratuak / Asistentes:**

**Alkate – Presidente / Alcalde-Presidente:**

*D. Santiago Uribe Laka jauna.*

**Zinegotziak / Concejales:**

*D. Iñaki Urigoitia Bengoa jauna.*

*Dña. Eider Ajuria Jausoro andrea.*

*D. Pello Otxandiano Campo jauna.*

*D. Kepa Gonzalez de Audicana Bengoetxea jauna.*

*Dña. Nekane Ortiz de Zarate Ajuriaguerra andrea.*

*Dña. Mónica Maldonado Lozano Andrea.*

*D. Javier Garate Galarza jauna.*

*D. Isidoro Garmendia Padilla jauna.*

**Bitarteko Idazkaria / Secretario interino:**

*D. Enrike Alaña Kapanaga jauna*

Otxandioko Udaletxean, 2011ko abenduaren 22an, arratsaldeko 20'00etan eta aurretik egindako deialdia erantzunez, Udal Osoa biltzen da goian aipatutako partaideekin, ohiko bilera ospatzeko. Alkate – Presidenteak batzarra ospatzeko kuoruma badagoela azalduz, Batzarra hasitzat ematen du, gai zerrendan azaltzen diren puntuen azterketa eta ebazpenari hasiera emanez.

En la Casa Consistorial de Otxandio, siendo las 20'00 horas del 22 de diciembre de 2011 y previa convocatoria cursada al efecto, se reúne en Sesión Plenaria Ordinaria el Ayuntamiento en Pleno, con la asistencia de los arriba señalados. El Alcalde – Presidente, considerando que existe quórum suficiente, declara abierta la sesión, dando paso al examen y deliberación de los diversos puntos señalados en el orden del día.

Alkate jaunak, aldez aurretik eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikulua ezarritakoan babestuz, eta gaien premiazkotasuna ikusirik, honako bi gai hauek aztertzea proposatzen du, Erralde hiltegiaren inguruko adierazpena eta BBKko asanbladaren Kontseilariak izendatzeko hautesle elkartera osatzeari buruzkoa.

Udalbatzak aho batez berresten du gaiak eguneko gai zerrendan sartzea.

**1.-2011KO AZAROAREN 10EKO ETA 23KO OSOKO BILKUREN AKTEN ONARTZEA, BIDEZKO BALITZ.**

Behin irakurrita, 2011ko azaroaren 10ean egindako Osoko Bilkuraren eta 2011ko azaroaren 23an egindako Osoko Bilkuraren aktak onartzen dira bertaraturakoen aho batekoaz.

**2.- IDATZIZKO HARREMANAK ETA ARAUPIDE OFIZIALAK.**

Azken bileratik gaurko egun arte jasotako korrespondentziaren irakurketa egiten da.

**3.- ALKATETZAK EMANDAKO DEKRETUEN BERRI EMATEA ETA BERRESPENA, BEHAR BADA.**

Alkate jaunak, emandako Alkatetza Dekretuen berri ematen du, bakoitzari dagokion gaia azalduz eta

El Sr. Alcalde, de forma previa y en virtud y al amparo de lo establecido en el artículo 82.3 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, plantea la necesidad, de incluir por razones de Urgencia dos nuevos puntos en el Orden del día, el relativo a una declaración en torno al matadero Erralde y otro en torno a la constitución de agrupación electoral para la designación de Consejeros en la Asamblea de la BBK.

La corporación por unanimidad ratifica su inclusión en el Orden del Día.

**1.- APROBACIÓN SI PROCEDE, DE ACTAS CORRESPONDIENTES A LAS SESIONES DE 10 Y 23 DE NOVIEMBRE DE 2011.**

Las actas correspondientes a las sesiones plenarias de 10 de noviembre de 2011 y de 23 de noviembre de 2011, una vez leídas, son aprobadas por unanimidad de los presentes.

**2.- CORRESPONDENCIA Y DISPOSICIONES OFICIALES.**

Se da lectura a la correspondencia recibida desde la sesión anterior.

**3.- DAR CUENTA Y RATIFICACIÓN SI PROCEDE DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA.**

EL Sr. Alcalde procede a informar de los Decretos de Alcaldía adoptados, dando lectura de los mismos uno a uno,

banan banan irakurriz.

**125/2011 ZENBAKIDUN  
ALKATE DEKRETUA**

Biztanle erroldan era ez egokian erroldaturik egoteagatik baja emateko espedienteari hasiera ematea ebazten da.

**126/2011 ZENBAKIDUN  
ALKATE DEKRETUA**

Plaza Nagusia, 11 zenbakidunean egindako lanengatik ezarritako bermea itzultzea ebazten da.

**127/2011 ZENBAKIDUN  
ALKATE DEKRETUA**

Jon Soloeta Barea jaunari, Otxandioko Uribarrena kaleko 8 zenbakidunaren txabolari leihoak aldatzeko eta pintatzeko, baimena ematea ebazten da, jabetza eskubidea salbu eta hirugarren pertsonetikiko kalterik gabe.

**128/2011 ZENBAKIDUN  
ALKATE DEKRETUA**

José Axpe Acera jaunari, Otxandioko Artekale, 18 zenbakidun eraikinean banaketa horizontala egiteko baimena ematea ebazten da, jabetza eskubidea salbu eta hirugarren pertsonetikiko kalterik gabe.

**129/2011 ZENBAKIDUN  
ALKATE DEKRETUA**

Otxandioko Elixoste kaleko 2

y exponiendo su temática.

**DECRETO DE ALCALDÍA  
Nº 125/2011**

Se resuelve acordar el inicio de expediente para declarar la baja en el padrón de habitantes por inscripción indebida.

**DECRETO DE ALCALDÍA  
Nº 126/2011**

Se resuelve proceder a la devolución de fianza establecida por obras en Plaza Nagusia, 11.

**DECRETO DE ALCALDÍA  
Nº 127/2011**

Se resuelve conceder licencia para cambiar ventanas de chabola y para pintarla, en el número 8 de la calle Uribarrena de Otxandio, instada por D. Jon Soloeta Barea, a salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio de terceros.

**DECRETO DE ALCALDÍA  
Nº 128/2011**

Se resuelve conceder licencia de obras de autorización de división horizontal en inmueble sito en Artekale, nº: 18 de Otxandio, instada por D. José Axpe Acera, a salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio de terceros.

**DECRETO DE ALCALDÍA  
Nº 129/2011**

Se resuelve iniciar expediente de

zenbakidunean agian baimenik gabe baimena behar duten egikaritzea egiten ari direla eta hiri ordenamendua bere oneratzeko espedienteak hasia ebazten da, egikaritzea hauek bertan behera gelditu daitezela agintzea eta 15 egunetako epea ematea dagokienez egoki ikusten duten dokumentazio edo alegazioak aurkez ditzaten.

**130/2011 ZENBAKIDUN  
ALKATE DEKRETUA**

Juan Antonio Pelaez Moreno jaunari, Otxandioko Mekoletako 9 zenbakidunaren atea aldatzeko, zoruan terrazoa jartzeko eta askako ura bideratzeko, baimena ematea ebazten da, jabetza eskubidea salbu eta hirugarren pertsonetikiko kalterik gabe.

**131/2011 ZENBAKIDUN  
ALKATE DEKRETUA**

Nahia Gomez Bengoa andreari, Otxandioko Mainerrota kaleko 7 zenbakidunaren atzeko fatxadako balkoia ixteko, baimena ematea ebazten da, jabetza eskubidea salbu eta hirugarren pertsonetikiko kalterik gabe.

**132/2011 ZENBAKIDUN  
ALKATE DEKRETUA**

Ebazten da: Eraikuntza, Instalazio eta Lanen gaineko zergaren ordainketa zatikatuta egiteko baimena emate José Axpe Acerari, jarraian azaltzen den moduan:  
Hamabi hilekotan 841'60 €koak hile

restauración del orden urbanístico perturbado, porque presuntamente se han ejecutado actos no amparados en la correspondiente licencia en el número 2 de la calle Elixoste de Otxandio, ordenar la inmediata paralización de los actos y conceder un plazo de 15 días a los interesados, para que presenten las alegaciones o documentación que estimen oportuna.

**DECRETO DE ALCALDÍA  
Nº 130/2011**

Se resuelve conceder licencia para cambiar puerta, poner terrazo, y canalizar agua del asca, en el número 9 de Mekoleta, de Otxandio, instada por D. Juan Antonio Pelaez Moreno, a salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio de terceros.

**DECRETO DE ALCALDÍA  
Nº 131/2011**

Se resuelve, conceder licencia para cierre de balcón en fachada trasera, en el número 7 de la calle Mainerrota, de Otxandio, instada por Dña. Nahia Gomez Bengoa, a salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio de terceros.

**DECRETO DE ALCALDÍA  
Nº 132/2011**

Se resuelve autorizar a José Axpe Acera a realizar de forma fraccionada, el pago del impuesto sobre Instalaciones, Construcciones y Obras indicado, de la siguiente manera:  
Doce mensualidades de 841'60 €

bakoitzeko 15. egunean ordainduko dira 2011ko abenduaren 15ean ordaintzen hasita.

**133/2011 ZENBAKIDUN  
ALKATE DEKRETUA**

Eskaturiko egur aprobetxamenduak ematea ebazten da.

**134/2011 ZENBAKIDUN  
ALKATETZA DEKRETUA**

Ebazten da:

1.- Udal ondasunen erabilera baimendu (mahai, kaballete, musika ekipoa, kale heziak eta garbitasuna egiteko materiala).

2.- Plazaren okupazioa 4-5 egunerako postuen muntaia eta Paseolekuaren erabilera euria eginez gero egitea baimentzea.

3.- Paseolekua erabili ezker, abenduaren 20.rako, martitzenetako azoka dela eta, garbi eta erabilpen egoera onean geratu beharko dela jakinaraztea Kementsu K.Eari.

4.- Azokakoak ez diren gainontzeko postu guztiak Carnecería kalean eta Udaletxearen ostean kokatuko direla jakinaraztea Kementtsu K.E.ari.

5.- Gogoratu eraztea eskatzaileari, Plaza Nagusia behin erabilita gero, garbi eta erabilpen

pagaderas los días 15 de cada mes, comenzando a abonarse el 15 de Diciembre de 2011.

**DECRETO DE ALCALDÍA  
Nº 133/2011**

Se resuelve conceder los aprovechamientos de leña solicitados.

**DECRETO DE ALCALDÍA  
Nº 134/2011**

Se resuelve:

1.- Autorizar la utilización de bienes municipales (tableros, caballetes, equipo de sonido, barrerillas metálicas y material de limpieza).

2.- Autorizar la ocupación de la Plaza Nagusia por 4-5 días para el montaje de los puestos, así como la utilización del Paseoleku en caso de lluvia.

3.- Comunicar a Kementsu K.E. que de utilizarse el Paseoleku, este deberá quedar totalmente recogido y limpio para el martes día 20 de Diciembre con motivo del mercadillo de los martes.

4.- Comunicar a Kementsu K.E. que los puestos que no participan en la feria serán ubicados en la calle Carnecería y en la trasera del Ayuntamiento.

5.- Recordar asimismo al solicitante la obligación de dejar la Plaza Nagusia, una vez utilizada, limpia y en

egoera onean utzi beharraren betebeharra.

6.- Benetan egindako eta fakturen bitartez justifikatutako gastuak, gehienez 3.000'00 €kin lagunduko dira.

Fakturekin justifikatutako gastua baino ez da diruz laguntzen.

**135/2011 ZENBAKIDUN  
ALKATETZA DEKRETUA**

Ebazten da:

1.- Udal aurrekontuan ezarrita dagoen diru laguntza, hau da, 1.200'00 €, abenduaren 20.nerako ordainduko dela jakinarazteaz Soinubil Kultur Elkarteari.

2.- Ekintza burutu eta gero eta diru laguntza justifikatzeko aurkeztu beharko da:

- egindako ekintzaren memoria
- diru sarrera eta irteeren zerrenda (elkarteko Presidente edo kontu emaileak sinatuta)
- diru irteeren justifikante originalak (fakturak \*)

(\*) Fakturak, ontzat eman ahal izateko, derrigorrez datu hauek agertu beharko dira:

- Ordain agiria edo faktura emititzen duenaren datuak: izena edo denominazio komertziala, helbidea eta

buen estado de uso.

6.- Conceder una ayuda para subvencionar los gastos efectivamente realizados y justificados mediante las oportunas facturas, siendo el importe máximo subvencionable de 3.000'00 €. Sólo será subvencionable el importe justificado mediante factura.

**DECRETO DE ALCALDÍA  
Nº 135/2011**

Se resuelve:

1.- Comunicar a Soinubil Kultur Elkartea que se procederá al abono de la subvención por importe de 1.200'00 € consignada en el presupuesto municipal para el presente ejercicio, para el día 20 de diciembre próximo.

2.- Para justificar la subvención concedida, una vez celebrada la actividad deberá presentarse:

- memoria de la actividad
- relación de ingresos y gastos (firmada por el Presidente o Tesorero de la Asociación)
- justificación original de gastos (facturas\*)

(\*) Para que las facturas puedan considerarse válidas, deberán contener los siguientes datos:

- Datos del emisor de la factura: nombre o denominación, dirección y CIF
- Datos del pagador: nombre y dos

IKF

- Ordaintzen duenaren datuak: izena, helbidea eta I.K.F.
- Data, fakturaren zenbakia eta kontzeptua
- Zenbatekoa eta BEZaren desglosea

Zuritutako gastuak ez balira alde zuretik emandako diru laguntzaren kopuruaren bestekoa, zuritu ez den diru kopurua Udalari itzuli beharko zaio.

3.- Luntxa edo mokadua emateko Bolalekua erabiltzeko baimena eman.

Bolalekuko giltzak eskuragarri izango dituzte abenduaren 21an, eguaztena.

Bolalekuko zorua era egokian babestu beharko da. Horretarako Soinubileko 6 kidek, udal langileekin elkar lanean jardun beharko dute, zoruaren babesa jartzen eta kentzen.

#### **136/2011 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA**

Ebazten da:

Eraikuntza, Instalazio eta Lanen gaineko zergaren ordainketa zatikatuta egiteko baimendu Aleaciones Ligeras Mecanizadaseri, jarraian azaltzen den moduan:

Lau hilekotan: 865'18 € hile bakoitzeko, 2012/01/31, 2012/02/28, 2010/03/31 eta 2010/04/30ean ordainduko direlarik.

#### **4.- KONTSULTORIO MEDIKUA**

apellidos, dirección incluyendo municipio y CIF

- Fecha, número y concepto del pago
- Importe y desglose de IVA.

Si los gastos justificados no llegaran a cubrir la cantidad entregada en concepto de subvención, se reintegrará al Ayuntamiento la cantidad no justificada.

3.- Autorizar la utilización del Bolaleku para la celebración de luntx.

Tendrán a su disposición las llaves del Bolaleku el miércoles 21 de Diciembre.

Deberá protegerse convenientemente el suelo del Bolaleku. Para ello al menos 6 miembros de Soinubil colaborarán con el personal del Ayuntamiento en las labores de montaje y desmontaje del protector del suelo.-

#### **DECRETO DE ALCALDÍA Nº 136/2011**

Se resuelve:

Autorizar a Aleaciones Ligeras Mecanizadas S.A. a realizar de forma fraccionada, el pago del impuesto sobre Instalaciones, Construcciones y Obras indicado, de la siguiente manera:

Cuatro plazos de cantidades iguales, esto es, el pago de una cantidad de 865'18 € los días 31/01/2012, 28/02/2012, 30/03/2012 y 30/04/2012.

#### **4.- PROBABACIÓN SI PROCEDE,**

**HARTUKO DUEN ERAIKINA  
EGITEKO GAUZATZE  
PROIEKTUAREN IDAZKETA  
KONTRATATZEKO PROZEDURA  
ETA HAU ARAUTUKO DUEN  
BALDINTZA PLEGUA ONARTZEA  
BIDEZKO BALITZ.**

Alkate jaunak hitza hartu eta proiektua idaztea kontratatu beharraz mintzatzen da.

Ikusita udal bulego teknikoak ezin duela berak bakarrik aipaturiko proiektua idatzi, gaur egun duen lan zamak ez baitu posible egiten.

Ikusita Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu Birbatua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 88 artikularekin bat eta Udal Arkitekto Aholkulariari egindako galderaren ondoren, aipaturiko proiektua idaztearen zenbatekoa 51.000,00.-€koa dela (BEZa barne) edo 43.220,34 gehi %18ko BEZa.

Ikusita indarrean dagoen aurrekontuaren zine zaharraren proiektua idazteko partidaren (412.643.02) edukia ikusita, 75.000,00 eurotako gastua egiteko bezain beste diru dagoela ikusita, aurre ikusitako 51.000,00 euro arteko gastua onartu eta egin daitekeela.

Ikusita Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu Birbatua onartzen duen

**DEL PROCEDIMIENTO DE  
CONTRATACIÓN PARA LA  
ELABORACIÓN DEL PROYECTO  
DE EJECUCIÓN DEL EDIFICIO  
QUE ALBERGARÁ EL  
CONSULTORIO MÉDICO, Y  
PLIEGOS QUE LO REGIRAN.**

Toma la palabra el Sr. Alcalde y expone, la necesidad de contratar la redacción del proyecto.

Visto que la oficina técnica municipal no puede acometer por sus propios medios, la redacción del proyecto reseñado, ya que la actual carga de trabajo lo impide.

Visto que de acuerdo a lo establecido en el artículo 88 del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, y una vez consultado el Arquitecto Asesor Municipal, se estima que el precio de redacción del proyecto asciende a 51.000,00.-€ (IVA incluido) o 43.220,34.-€ más el 18% de IVA.

Visto el contenido de la partida presupuestaria destinada a la redacción del proyecto para el cine viejo (412.643.02) existe una consignación presupuestaria de 75.000,00 euros en vigente presupuesto general, se ha de considerar que existe consignación suficiente en la para la autorización del gasto calculado de 51.000,00.-€.

Visto que de acuerdo a lo establecido en el Real Decreto Legislativo 3/2011, de

azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak ezartzen duenez, zeinak Eremu Publikoaren Kontratuak arautzen duen, zerbitzu kontratu bezala honako hau ulertzen dela:

14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, se entiende por contrato administrativo de servicio:

**“Artículo 10. Contrato de servicios.**

Son contratos de servicios aquéllos cuyo objeto son prestaciones de hacer consistentes en el desarrollo de una actividad o dirigidas a la obtención de un resultado distinto de una obra o un suministro. A efectos de aplicación de esta Ley, los contratos de servicios se dividen en las categorías enumeradas en el Anexo II.

**ANEXO II**

**Servicios a que se refiere el artículo 10**

Categorías	Descripción	Número de referencia CPC (1)	Número de referencia CPV
12	Servicios de arquitectura; servicios de ingeniería y servicios integrados de ingeniería; servicios de planificación urbana y servicios de arquitectura paisajista. Servicios conexos de consultores en ciencia y tecnología. Servicios de ensayos y análisis técnicos.	867.	De 71000000-8 a 71900000-7 (excepto 71550000-8) y 79994000-8.

Ikusita Sektore Publikoaren Kontratuak Legearen testu Birbatua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 2, 5 eta 19 artikuluen arabera, Administrazio Publikoek egiten dituzten beste kontratu administratiboek kasuetan bezala, zerbitzu kontratuak ere, bai prestakuntzan, bai esleipenean, bai efektuetan eta bukatzen aipaturiko Errege Dekretu Legegilea da aplikagarri, honek aurre ikusten ez dituenetan beste arau administratiboak izango direla aplikagarri, eta honek arautu ezean, zuzentza pribatukoak.

Visto que de conformidad con lo establecido en los artículo 2, 5 y 19 del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, los contratos de servicios, al igual que el resto de contratos administrativos que se celebren por una Administración Pública, se regirán en cuanto a su preparación, adjudicación, efectos y extinción, por el mencionado Real Decreto Legislativo y supletoriamente se aplicarán las restantes normas de Derecho Administrativo y, en su defecto, las normas de derecho privado.

Ikusita jende aurrean jarri gabeko espediente arruntaren bitartez egin daitekeela kontratatzea, zenbait esleitze irizpideren arabera. Esleitze prozedura hau proposatzen da Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu Birbatua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 169 eta 177 artikuluetan ezarritakoarekin bat, eta egokitzat jotzen da, beti eta noiz esleipen irizpideak 150 artikuluekin bat datozen eta konkurrentzia 178.1 artikuluekin.

Hirigintza eta Ingurumen Batzordearen aldeko irizpena ikusita, bertaratutakoen aho batekoaz ebazten da:

**LEHENA:** Kontsultorio medikua hartuko duen eraikina egiteko gauzatze proiektuaren idazketa kontratatzeko prozedura onartzea.

**SEGUNDO:** Kontsultorio medikua hartuko duen eraikina egiteko gauzatze proiektuaren idazketa kontratatzeko prozedura arautuko duten baldintza tekniko eta administratiboen pleguak onartzea, eta ondoren aipatzen dira:

**ADMINISTRAZIO-BALDINTZA**  
**ZEHATZEN AGIRIA:**  
**ZERBITZUAK JENDAURREAN**  
**ZABALDU GABE ETA**  
**NEGOIAZIO BIDEZ**  
**KONTRATATZEA**

Visto que se tramitará expediente ordinario para la adjudicación del contrato mediante procedimiento negociado sin publicidad y mediante varios criterios de adjudicación. Se propone tal forma de adjudicación de acuerdo con a los art. 169 y 177 del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público. Se estima apropiada la forma de adjudicación mencionada siendo los criterios de adjudicación acordes con lo establecido en el art. 150 y con el principio de concurrencia del artículo 178.1.

Visto el informe favorable de la Comisión de Urbanismo y Medio Ambiente, por unanimidad de los presentes se acuerda:

**PRIMERO:** Aprobar el procedimiento de contratación para la elaboración del proyecto de ejecución del edificio que albergará el consultorio médico.

**SEGUNDO:** Aprobar los pliegos de condiciones técnicas y administrativas que regirán el elaboración del proyecto de ejecución del edificio que albergará el consultorio médico, y que a continuación se transcriben:

**PLIEGO DE CLÁUSULAS**  
**ADMINISTRATIVAS**  
**PARTICULARES DE CONTRATO**  
**DE SERVICIOS POR**  
**PROCEDIMIENTO NEGOCIADO**  
**SIN PUBLICIDAD**

**OTXANDIOKO ZINE ZAHARRA  
ERAIKINA DAGOEN ORUBEAN,  
OSASUN ZENTROA ETA  
ZUZKIDURAKO BIZITOKIAK  
EGITEKO GAUZATZE  
PROIEKTUA IDAZTEA.**

**I.- KONTRATUAREN EDUKIA**

**1. KONTRATUAREN GAIA**

Kontratuaren gaia, espedientean zehaztutakoekin bat etorritik, hau da: Otxandion Udaletxe kalean dagoen Zine Zaharra dagoen orubean, Osasun Zentroa eta Zuzkidurako Bizitokiak egiteko gauzatze proiektua idaztea, espedienteko dokumentazio teknikoarekin bat etorritik. Espedienteak kontratu-izaera du.

Zerbitzua, esleipenaren ondorioetarako, zati bakar bezala kontsideratuko da, eta lehiatzaileen proposamenean hartutako lan guztiak jaso beharko ditu:

Arkitektura, eraikuntza, ingeniari-tza eta ikuskeren zerbitzuak.

CPC Kodea, nomenklaturaren arabera: 86700.

Kodea, CPV nomenklaturaren arabera: 71000000-8.

**2. LANAK BURUTZEKO EPEA**

Kontratuaren iraunaldia hau izango da: Gauzatze proiektua 2012ko irailaren 15erako Otxandion Udaletxeke bulegoetan aurkeztuta egon beharko da.

**REDACCIÓN DEL PROYECTO  
PARA LA CONSTRUCCIÓN DE UN  
CENTRO DE SALUD Y  
ALOJAMIENTOS TUTELADOS EN  
EL SOLAR DENOMINADO CINE  
VIEJO**

**I.- CONTENIDO DEL CONTRATO**

**1. OBJETO DEL CONTRATO**

El contrato que en base al presente pliego se realice, tendrá por objeto: la redacción del proyecto para la construcción de un centro de salud y alojamiento s tutelados en el solar denominado cine viejo, de conformidad con documentación técnica que figura en el expediente, que tendrá carácter contractual.

A efectos de la adjudicación, el servicio se divide en los lotes que a continuación se indican, siendo posible presentar oferta por uno, varios o todos los lotes:

Servicios de arquitectura, construcción, ingeniería e inspección.

Codificación de la nomenclatura CPC: 86700.

Codificación de la nomenclatura CPV: 71000000-8.

**2. PLAZO DE EJECUCIÓN**

El plazo de duración del contrato será el siguiente: El proyecto de Ejecución habrá de estar presentado en las oficinas del Ayuntamiento de Otxandio para el

Behin Udalak onartuta eta honek ezartzen dituen aldaketak hartuta, hau dagokion bazkunean edo elkargoan da, gastu hauek esleipena hartu duenaren kontura izango direlarik.

### 3. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa gehienez ere hau izango da, BEZ barne:

51.000,00.- € (BEZa barne)

Lehiatzaileek diru-kopuru horiek hobetu ditzakete.

### 4. FINANTZATZEA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan, 412.643.02 partidan.

### 5. NOLA ORDAINDU

Administrazioari kobrantza-agiri egokia aurkeztu eta berak onartu ondoren ordainduko da kontratuaren prezioa. Ordainketa honela egingo da: Prezioa behin lana bukatuta ordainduko da, eta faktura aurkeztu ondoren.

### 6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratu honetan ez da bidezkoa prezioak berraztertzea, espedienteen egiaztatzen denez.

### 7. BERMEAK

15 de septiembre de 2012. Una vez aprobado por el Ayuntamiento y una vez recogidos los cambios que este establezca, se habrá de visar en el colegio correspondiente corriendo estos gastos por cuenta del adjudicatario.

### 3. PRECIO DEL CONTRATO

El precio máximo del convenio (IVA incluido) será de:

51.000,00.-€ (IVA incluido)

El precio podrá ser mejorado a la baja.

### 4. FINANCIACIÓN

Para sufragar el precio del contrato hay prevista financiación con cargo al presupuesto del año en curso, partida 412.643.02.

### 5. FORMA DE PAGO

El pago del precio del contrato se realizará contra la presentación y conformidad del correspondiente documento cobratorio y en la siguiente forma, una vez realizados los trabajos tras la presentación de la factura y aprobada esta por el pleno.

### 6. REVISIÓN DE PRECIOS

En el presente contrato no procederá la revisión de precios tal y como se acredita en el expediente.

### 7. GARANTÍAS

Kontratuaren behin-behineko esleipendunak 2.161,01.-€ko behin betiko bermea eman beharko du, hartutako konpromisoak beteko dituela bermatzeko. Kopuru hori esleipeneko zenbatekoaren % 5koa izango da, BEZ gabe.

Berme hori jartzeko epea egutegiko hamabost egunekoa izango da, kontratuaren esleipena jakinarazi eta biharamunetik hasita. Bermea jartzeko bidea, berriz, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu Birbatua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 96. artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke.

Berme-epea amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu Birbatua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 102. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik egingo da.

## 8. KONTRATUA BURUTZEA

Kontratu hau burutu ahal izateko, gutxienezko honako baldintza hauek bete beharko ditu, baldintza teknikoaren orriak ezarritakoaren kalterik gabe, Sektore Publikoaren Kontratuen

El adjudicatario provisional del contrato, a fin de garantizar el cumplimiento de las obligaciones contraídas, está obligado a constituir una garantía definitiva por importe de 2.161,01.-€, equivalente al 5% del importe de adjudicación, excluido el IVA.

El plazo para la constitución de la citada garantía será de quince días hábiles contados desde el día siguiente a la notificación de la adjudicación provisional y podrá constituirse en cualquiera de los medios establecidos en el artículo 96, del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.

La devolución de la garantía, tanto total como parcial en su caso, se realizará de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 102 del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, una vez vencido el plazo de garantía y cumplidas por el adjudicatario todas sus obligaciones contractuales.

## 8. EJECUCIÓN DEL CONTRATO

Para la ejecución de este contrato se exigirán las siguientes condiciones de ejecución establecidas en los artículos 121, 122, 123, 124, 125 y 126 y sus concordantes del Real Decreto

Legearen testu Birbatua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 121, 122, 123, 124, 125 eta 126 artikulua eta hauekin bat egiten duten artikuluek xedatutakoa.

Baldintza horiek kontraturako funtsezko betebeharrak dira, eta beraz, betebeharrak ez betetzeak kontratua etetea ekar dezake berarekin, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu Birbatua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 223 artikulua ezarritakoarekin bat.

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da.

Zerbitzuak egiterakoan, agiri honetan dauden baldintzak bete beharko dira, bai eta espedienteari erantsitako xehetasun teknikoak ere, halakorik egonez gero. Kontratua Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Esleipendunari edo haren aginduekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

## 9. ESLEIPENDUNAREN LAN-EGINKIZUNAK

Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público

Estas condiciones tienen el carácter de obligación contractual esencial, por lo que, al amparo de lo previsto en el art. 223 del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, su incumplimiento podrá ser considerado causa de resolución del contrato.

La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura del contratista.

El contrato se ejecutará con sujeción a las cláusulas contenidas en el presente pliego y, en su caso, a las especificaciones técnicas unidas al expediente, bajo la dirección, inspección y control de la Administración, quien ejercerá estas facultades tanto por escrito como verbalmente.

Cuando por actos u omisiones imputables al contratista o a personas de él dependientes se comprometa la buena marcha del contrato, la Administración podrá exigir la adopción de las medidas que estime necesarias para conseguir o restablecer el buen orden en la ejecución del mismo.

## 9. OBLIGACIONES LABORALES DEL CONTRATISTA

Esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higiearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

#### 10. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Esleipendunaren ardura da zerbitzu-eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu Birbatua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 123 eta 305 artikuluek ezarritakoarekin bat etorritz.

#### 11. KONTRATUA ALDATZEA

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du, ustekabeko arrazoiak sortzen direnean. Esleipendunak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu Birbatua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 307 eta 219 artikuluek ezarritakoarekin bat.

El contratista está obligado al cumplimiento de las disposiciones legales vigentes en materia laboral, de Seguridad Social y de seguridad e higiene en el trabajo, quedando la Administración exonerado de responsabilidad por este incumplimiento.

#### 10. RESPONSABILIDAD DEL CONTRATISTA POR LOS DAÑOS CAUSADOS A TERCEROS DURANTE LA EJECUCIÓN DEL CONTRATO

El contratista será responsable de los daños y perjuicios que se causen como consecuencia de las operaciones que requiera la ejecución del contrato, de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 123 y 305 del del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.

#### 11. MODIFICACIONES DEL CONTRATO

La Administración podrá modificar el contrato, por razones de interés público, para atender a causas imprevistas, no teniendo derecho el contratista a indemnización alguna, de acuerdo a lo establecido en los artículos 307 y 219 del del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.

## 12. ZERBITZUA HARTZEA ETA BERME-EPEA

Zerbitzua eman eta, gehienez, 15. egun pasa baino lehen, zerbitzuaren harrera formala egingo da, hemen: Otxandioko Udaletxean, Plaza Nagusia, 1 (Otxandio).

## 13. ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU.

### A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko lanak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo lanak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diruzigorra ezartzea: egunean 0,20 euro kontratuaren prezioaren 100 euroko.

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

## 12. RECEPCIÓN Y PLAZO DE GARANTÍA

En el plazo máximo de 15 días desde la finalización de la prestación objeto del contrato se producirá el acto formal y positivo de recepción de la misma, que se llevará a cabo en el Ayuntamiento de Otxandio, Plaza Nagusia, 1 (Otxandio).

## 13. PENALIDADES AL CONTRATISTA POR INCUMPLIMIENTO

### A) DE LOS PLAZOS DE EJECUCIÓN DEL CONTRATO

Si el contratista, por causas imputables al mismo, hubiese incurrido en demora respecto del cumplimiento del plazo de ejecución del contrato, tanto del plazo total como, en su caso, de los plazos parciales, la Administración podrá optar indistintamente por la resolución del mismo, con pérdida de la garantía, o por la imposición de las penalidades diarias en la proporción 0,20 por cada 100 euros del precio del contrato.

Cada vez que las penalidades por demora alcancen un múltiplo del 5 por 100 del precio del contrato, el Órgano de Contratación estará facultado para proceder a la resolución del mismo o acordar la continuidad de su ejecución con imposición de nuevas penalidades.

## B) PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.

Prestazioa burutzean akatsak izan badira, Administrazioak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

18.e) klausulan eskatzen den baliabide material edo langileekin kaudimena osatzeko betekizuna betetzen ez bada, Administrazioak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

## 14. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu Birbatua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 223 eta 308. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

## 15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

## B) DE LA EJECUCIÓN PARCIAL DE LAS PRESTACIONES

Cuando el contratista, por causas imputables al mismo, hubiere incumplido la ejecución parcial de las prestaciones definidas en el contrato, la Administración podrá optar, indistintamente, por su resolución o por la imposición de una penalidad equivalente al 10 por 100 del precio total del contrato.

En caso de cumplimiento defectuoso de la prestación, la Administración podrá imponer una penalidad equivalente al 10% del presupuesto del contrato

En caso de incumplimiento de la obligación de complementar la solvencia con los medios materiales o personales exigidos en la cláusula 18. e), la Administración podrá imponer una penalidad equivalente al 10% del presupuesto del contrato.

## 14. CAUSAS DE RESOLUCIÓN DEL CONTRATO

Constituyen causas de resolución del contrato de obras las establecidas en los artículos 223 y 308 del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.

## 15. PRERROGATIVAS DE LA ADMINISTRACIÓN

Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu Birbatua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

## II. KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

### 16. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

Kontratu honen esleipena negoziazio bidez egingo da, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu Birbatua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 169 eta 177 artikuluek ezarritakoarekin bat etorriz, eta testu horren 150 artikulua jasotakoa kontutan izanez.

Honako irizpide hauek hartuko dira oinarriz (garrantzi eta haztapenaren arabera ordenatuta), gero kontratuaren esleipena egiteko, zehaztuago baldintza teknikoaren orrian agertuko delarik:

Prezioa (51%)

Eta ondoren aipatzen den eran baloratuko dira emaitzak:

Corresponden a la Administración las prerrogativas de: a) interpretar el contrato, b) resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, c) modificarlo por razones de interés público, d) acordar su resolución y determinar los efectos de ésta, dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos establecidos en el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público la Ley de Contratos del Sector Público.

## II.- PROCEDIMIENTO PARA CONTRATAR

### 16. PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN

La adjudicación del presente contrato se llevará a cabo por procedimiento negociado, de conformidad con lo previsto en los artículos 169 y 177 del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, y con observancia de lo establecido en el 150 del mismo texto.

Los criterios que han de servir de base para la adjudicación del contrato relacionados por orden decreciente de importancia y por la ponderación que se les atribuye son los siguientes:

Precio (51%)

Las ofertas se valorarán en la forma que a continuación se reseña:

Hobetsiko den eskaintza prezio medioaren (PM izendatzen dena) %95etik hurbilen dagoena izango da.

Prezio medioaren %90etik behera dauden eskaintzak, hau da  $0,90 \times PM$ , ez dute punturik eskuratuko, eta honez gain arriskuzko presuntzioan daudela hartuko da kontutan.

Prezio medioarekin (PM) bat egiten duen eskaintzak puntuazio handieneko %70 puntuak hartuko ditu.

Esleipen prezioarekin bat egiten duen eskaintzak ez du punturik hartuko.

Beste eskaintzak linealki jarriko dira ondoren aipatzen diren formulen aplikazioaz. Honela izanik:

$PL =$  Esleipen prezioa

$N =$  Aurkeztutako eskaintzen zenbakia

$P_i =$  Eskaintzaren prezioa  $i$

$M = (\sum P_i) / N =$  Eskaintzen Prezio Medioa

Grafiko eta formularen bitartez lortutako emaitza banatu beharreko puntuen ehunekoari dagokio. Hau da formula eta grafikoaren bitartez, eskaintzak 51 puntu lortuko lituzke.

Se establece una formulación que primará con la máxima puntuación a aquella oferta que su valor sea igual al 95% del precio medio de todas las ofertas, en adelante denominado PM.

Las ofertas que se encuentren por debajo del umbral del 90% del precio medio, es decir  $0.90 \times PM$ , no obtendrán puntuación alguna, además de ser consideradas ofertas incursas en presunción de temeridad.

La oferta cuyo precio coincida con el precio medio (PM) obtendrá un 70% de la máxima puntuación.

La oferta cuyo precio coincida con el precio de licitación, no obtendrá puntuación alguna.

El resto de las ofertas se interpolarán linealmente mediante las ecuaciones que se acompañan.

Siendo:


$PL =$  Precio de licitación

$N =$  Número de ofertas que se presenten

$P_i =$  Precio de la oferta  $i$

$M = (\sum P_i) / N =$  Precio Medio de todas las ofertas

El dato obtenido mediante el gráfico y sus fórmulas se refiere al porcentaje sobre los puntos a repartir. Esto es, obteniendo un 100 mediante las fórmulas y el gráfico, la propuesta recibiría 30 puntos.



FÓRMULA RECTA 1:

$$\text{Puntos obtenidos} = \frac{2000 \times P_i}{PM} - 1800$$

FÓRMULA RECTA 2:

$$\text{Puntos obtenidos} = 670 - \frac{600 \times P_i}{PM}$$

FÓRMULA RECTA 3:

$$\text{Puntos obtenidos} = 70 \times \frac{PL - P_i}{PL - PM}$$

Azterketa bioklimatikoa eta proposaturiko energi sistema, diseinu bioklimatikoa eta materialak (20%)

Diseinu programatikoa (20%)

Fatxada proposamena (9%)

Aipatutako irizpideak eta kontratuari lotutako beste edozein alderdi ekonomiko, tekniko edota logistiko negoziatuko da parte-hartzaileekin.

Estudio bioclimático y sistema energético propuesto, materiales y diseño bioclimático (20%).

Diseño programático (20%)

Propuesta de fachada (9%)

La negociación con los participantes podrá versar sobre los mencionados criterios así como sobre cualquier aspecto económico, técnico y/o logístico

## 17. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoen parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeke debekuren bat ez badute, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu Birbatua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 60 artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeke eta ebaluatzeke bideak 62 artikuluan ezarritakoarekin bat egiaztatuko dira.

Pertsona fisiko edo juridikoen beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariak kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeke gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Enpresariak, gainera, kontratu hau burutzeko eska daitekeen enpresa gaitasuna edo profesionala izan beharko dute.

referido estrictamente al objeto del contrato.

## 17. CAPACIDAD Y SOLVENCIA PARA CONTRATAR

Podrán tomar parte en este procedimiento de contratación las personas naturales o jurídicas que se hallen en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, acrediten su solvencia económica, financiera y técnica o profesional y no estén incurso en ninguna de las prohibiciones para contratar establecidas en el artículo 60 del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público. La solvencia se acreditará y evaluará de acuerdo con los medios establecidos en el artículo 60.

Asimismo, podrán hacerlo por sí o representadas por persona autorizada, mediante poder bastante otorgado al efecto. Cuando en representación de una persona jurídica concurra algún miembro de la misma, deberá justificar documentalmente que está facultado para ello. Tanto en uno como en otro caso, al representante le afectan las causas de incapacidad para contratar citadas.

Los empresarios deberán contar, asimismo, con la habilitación empresarial o profesional que, en su caso, sea exigible para la realización de

18. PROPOSAMENAK AURKEZTEA  
ETA PARTE HARTZAILEEKIN  
NEGOZIATZEA

Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, honako lekuan, ordutegian eta epean aztertu ahal izango da:

LEKUA: Otxandioko udaletxean.

ORDUAK: 08:00 -15:00

EPEA: Azkeneko eguna 2012ko martxoaren 15a izango da.

Gonbidatutako enpresek kartazal bakarra aurkeztu beharko dute. Kartazalean honako hau idatziko da: "OTXANDIOKO ZINE ZAHARRA ERAIKINA DAGOEN ORUBEAN, OSASUN ZENTROA ETA ZUZKIDURAKO BIZITOKIAK EGITEKO GAUZATZE PROIEKTUA IDAZTEA KONTRATATZEKO NEGOZIAZIO BIDEZKO LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA".

